

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/02/26

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Olaia Lasa Olaziregi
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Iragorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Ezin etorria adierazi dute:

Ekain Susperregi Ibarguren

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. Haurtzaro ikastolak 2024. urtean jasotako dirulaguntzaren zuriketaren justifikazio-kontua onartzea.
3. OARSOALDEA, Saren eta Oiartzungo Udalaren arteko Eskualdeko Energia Bulegoaren zerbitzua Oiartzunen eskaintzeari buruzko hitzarmena.
4. 2024 urteko udal inbentarioaren aldaketak eta eguneraketa. Akats zuzenketa.
5. 2025-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 1-Aldaketa.
6. Aldapa Behekoako igerileku txikiko ur kontsumoa erregularizatzeko eskaera.
7. Oiartzungo Udala eta IZFE, S.A. ren arteko hitzarmenaren luzapena.
8. Beste organoen jardueraren jarraipena egin zen.
9. Ez zen eskari-galderarik egon.

Esan-eginak eta erabakiak

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2025ko urtarrilaren 29an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen aho batez, aldeko 15 botorekin (EHBildu 11, EAJ/PNV 4)

Oihana Irastorza andrea Haurtzaro ikastolako langilea denez, ondoren landuko den gaian interes gatazka duela- batzarretik kanpora atera da.

-II-

HAURTZARO IKASTOLAK 2024. URTEAN JASOTAKO DIRULAGUNTZAREN ZURIKETA.

Alkateak dio, Oiartzungo udala eta Haurtzaro ikastolaren arteko hitzarmena dagoela, urtero ekarpen bat egiten dela eta dagoeneko aurkeztu dutela 2024 urtean jasotako dirulaguntzaren zuriketa. Ikastolak aurkeztu duen dokumentazioa aztertu ondoren, zuriketa ondo egin dela ikusi da eta beraz, zuriketa onartzea proposatu du alkateak.

Idazkariak hitza hartzen du, aurreko urtetik hona berezitasun bat dagoela aipatzen du, herri kontuek epaitegiak eskatuta, gain finantzazioak ekidite arren, jasotako dirulaguntzen, bai Eusko Jaurlaritzakoak eta bai udalarenak, justifikazioa egin beharko zuela. Horiek horrela, gastu guziak eta jasotako dirulaguntza guziak aurkeztu ditu. Aurkeztutako konprobatu ondoren, dena zuzen dagoela ikusi da eta ontzat eman da zuriketa.

Guzti hau kontutan hartuta, Herritarren Batzordeak 2025eko otsailaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra.- Haurtzaro Ikastolak aurkeztutako 2024. urteko dirulaguntzaren justifikazio-kontua onartzea, sinatutako hitzarmenak ezarritako kontzeptuei lotzen zaiola eta 2024ko urtarrilaren 31ko Udal Osoko Bilkurak ezarritako betekizunak gorde direla (dirulaguntzaren erabilerari eta justifikazioari dagokionez) egiaztatu denez. Justifikazio-kontuetan jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztien zerrenda aurkeztu da, egiaztatuz ez dagoela gainfinantzaziorik.

Bozketa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	14	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa	1	Oihana Irastorza Gonzalez



Gaia gehiengoz onartu da aldeko 14 botorekin (EHBildu eta EAJ/PNV) eta abstentzio batekin (EHBildu taldeko Oihana Irastorza Gonzalez zinegotziarena, Haurtzaro Ikastolako langilea delako.)

Bozka egin ondoren Oihana Irastorza Gonzalez aretora sartzen da.

-III-

OARSOALDEA, SAREN ETA OIARTZUNGO UDALAREN ARTEKO ESKUALDEKO ENERGIA BULEGOAREN ZERBITZUA OIARTZUNEN ESKAINTZEARI BURUZKO HITZARMENA.

Alkateak adierazten du, Oarsoaldeak energia bulego bat duela, herritarrei eta enpresei zuzendua, argiaren eta gasaren gastuaren inguruko aholkularitza emateko. Bulegoa 2021. Urtean jarri zen martxan Erreterian, hori horrela izanik, aurreko urtean eskaera egin zen, asteen behin Oartzunen emateko zerbitzua. Kontua da, urte hauetan gorakada nabarmen bat ikusi dela Oartzungo herritarrek egindako kontsultetan, hasiera batean 23 -27 kontsulta bitarte egoten ziren, baina 2024. urtean 91 kontsulta erregistratu ziren.

Energia bulegoak emandako emaitzen baitan, bertaratu den gehiengoa partikularrak dira. Kontsulten %68 fakturei dagozkienak, %21 energia berriztagarrien inguruan eta %8 bono sozialen ingurukoak.

Guzti honekin ikusi da, abuztutik eskualde osoan, batz best 22,53€ aurreztu dira hilean argindarraren fakturan eta gasean urtean 580,00€

Beraz, ikusirik herritarrek interen handia adierazi dutela eta ekonomikoki onuragarria suertatu dela, hitzarmena berritza proposatzen da.

Aipatutakoa kontuan hartuta, Idazkariaren txostenarekin eta Lurraldeko Batzorde informatzaileak 2025eko otsailaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra.- OARSOALDEA, S.A. eta Oartzungo Udalaren arteko Eskualdeko Energia Bulegoaren zerbitzua Oartzunen eskaintzeari buruzko lankidetzaz-hitzarmenaren lehen luzapena onartzea, 2025eko abenduaren 31 arte.

-IV-

2024 URTEKO UDAL INBENTARIOAREN ALDAKETAK ETA EGUNERAKETA. AKATS ZUZENKETA

Alkateak aipatzen du udal inbentarioaren akats bat antzeman dela eta ondorioz, eguneraketa eta aldaketa bat egin behar dela.

Batetik, inbentarioa osatzeko momentuan ez zen kontutan eduki Oartzun Turismo S.A sozietate disolbatu eta likidatu egin zela beraz, sozietateari zegozkion ondasunak inbentarioan gehitu behar zirenez, ala egin dela adierazi du alkateak.

Bestetik, 2021eko azaroaren 24ean, Añarbeko Urak S.A.k onartutako goi-saneamenduko sarearen eta Oartzungo Udalarena den behe saneamenduaren arteko mugaketa onartu zen, eta ondorioz behe saneamendu-sare horiek inbentarioan sartu direla dio.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien Batzorde informatzaileak 2025eko otsailaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA:

Bakarra.- Osoko Bilkuraren 2025eko urtarrilaren 29ko erabakian antzemandako akatsak zuzentzea eta onartzea aurrekarietan aipatutako eta honekin batera eranskin bezala jasotzen diren altak, bajak eta aldaketak.

-V-

2025-2027 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 1-ALDAKETA

Alkateak dio, dagoeneko hasita dagoen prozesua dela, herritarren eta agente ekonomikoen arteko elkar lanerako gune bat sortzea dela honen helburua eta hemen ikusten dela herritarrek behar bezala parte hartu ahal izateko, dirulaguntza honen premia dagoela.

Bergaretxe jaunak hartzen du hitza. Gai honen inguruan pedagogiarik ez duela egin nahi adierazten du, baina eztabaida bat sortzearen, burujabetza kontzeptu eta termino bezala ematen zaion erabileraren inguruan mintzatzen da.

EAJ/PNV partiduaren izenean dio, beraiek ez datozela bat burujabetza hitzari emandako erabilerarekin eta horren inguruan hainbat aipamen egin nahi dituela esaten du.

Lehenik, burujabetza kontzeptua, norbera bere buruaren jabe izatetik dator, kontzeptu oso pertsonala dela azpimarratzen du, ondoren politikara eraman dena. Kasu honetan, burujabetasuna aipatzen du, herri bat bere buruaren jabe izatearen ikuspuntutik datorrela, hiztegietan itzulpen desberdinak agertzen direla, subiranotasuna, independentzia, autonomia etab., beraz, eztabaida interesgarria dela burujabetza hitzari eman nahi diogun zentzua ezartzea.

Burujabetasuna kontzeptua oso baliagarria izan daitekeela, baina azterketa eta gogoeta sakonagoa eta konpartitua behar duela dio.

Oiartzun Burujabetza proiektua lehen aldia dela foro bezala planteatzen dela hortaz, proiektuak konpartituagoa eta definituagoa izan beharko lukeela dio. Horiek horrela, bozketan partidu bezala abstenitu egingo direla dio.

Ibon Mitxelena jaunak, gogorarazten du prozesua hasi baino lehen, 2023 ko urrian egin zela Burujabetza proiektuaren inguruko bilera. Dena den, proiektua parte hartzailea denez, azpimarratu nahi du edozein dagoela gonbidatua parte hartzera. Azkenean proiektuaren helburua arlo desberdinetan erabakitzeko eskubidea edukitzea dela eta horiek horrela burujabetza kontzeptuari pluralitatea ematen diotela, burujabetza politikoa, euskararen ingurukoa, ekonomikoa, zaintza, energia etab. Hortaz, nahi eta agian burujabetza hitza ez izan hizkuntzaren aldetik proposena, proiektu honen helburua, aipatutako arloetan erabakitzeko eskubidearen limiteak noraino iristen diren identifikatzea da.

2023an eman zitzaion hasiera proiektuari, eboluzio bat egon da, arlo ezberdinetako mahi inguruak sortu dira eta gaur egun 5 arlo lantzea erabaki da. Aipatutako 5 arloak, euskara, kultura, zaintza, energia eta elikadura dira. Aipatutako mahi inguruetan, udalak, hainbat elkartek Hemenguk, Labore edo eta Itturri komunitatea eta nola ez herritarrak.

Alkateak azpimarratu nahi du, prozesu honek bilatzen duela parte hartzea eta udala ez dadila izan besteak baino gehiago, ez akzio aldetik eta ez erabakitze aldera. Udala ez dadila izan erabakitzen duena

baizik eta taldean hartutako erabakiak izan daitezela. Horregatik bilatu nahi da herritarrek aktibo egon daitezela prozesu osoan.

Honi erantzunez, Bergaretxe jaunak dio, ados daudela parte hartze prozesuarekin, herritarrei ahotsa eman nahi izatearekin, baina burujabetza kontzeptua bera gehiago sakontzeko beharra ikusten dutela. Burujabetza ez dela subiranotasuna eta gizartean geroz eta interdependentzia gehiago daudela eta gehiago egongo direla hortaz, burujabetza interdependentzia horiek ahalik eta askatasun handienarekin hartzeko.

Mitxelena jaunak hartzen du hitza, berriro luzatzen die bilera egiteko gonbidapena gaia sakonago landu ahal izateko.

Lasa andereak, prozesuari jarritako definizioa irakurtzen du “Oñartzun buru jabe egiteko modu berri bat da, lehengoari jarraipena emanez herriko beharrak asetzea oinarri eta burujabetza eraldatzailea helburu duena. Udalgintza eta herrigintza elkar lanean eta modu horizontalean lanean. Herri prozesua bat da.” Hausnarketa baten ondoren egindako definizioa dela dio.

Idazkari jaunak, plano juridikoari begira ondorengoa azaltzen du, Plan estrategikoa aldatzen denez eta eman beharreko pausuei begira, gaurko egunarekin hasierako onarpena ematen zaio, 30 egunez kontsulta publikoan egongo da, ekarpenak egin nahi badira, ekarpenak ezen ohikoa den bezala, behin betikotzat onartua geratuko da Udal osoko batzarrera berriro ekarri gabe. Behin plan estrategikoaren aldaketa onartuta irekita geratzen da bidea dagokion hitzarmena eta dirulaguntza emateko.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan, Kontuhartzailearen txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko otsailaren 20ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenen. 2025-2027 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 1. aldaketa onartzea, 1. lerro estrategikoan -ekonomiaren sustapena-, honako programa berri hau jasotzea onartuz:

1. lerro estrategikoa: ekonomiaren sustapena

Helburu orokorra: Oñartzunen garapen ekonomiko jasangarria eta enpleguaren sustapena genero ikuspegitik bultzatzea herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa	Adierazleak	Ekintza plana: oinarri arautzaileak izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia
Burujabetza proiektuaren herriratzean	Burujabetza proiektuaren herriratzea, parte hartzean eta elkarlana bultzatzen laguntzea	Alternatiben Oihartzuna	Itunpekoa	20.000 €	- Urteko memoria eta urteko emaitzen aurkezpen publikoa. - Txosten ekonomikoa	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten

					- Parte hartzaile kopurua, sexuagatik eta ekintzagatik desagregatua	baldintza guztiak.
--	--	--	--	--	---	--------------------

Dirulaguntza hau ordaintzeko kontuan izango da 38/2003 dirulaguntza arautzen dituen Lege Orokorra, Oiarztungo Udal Ordenantza Orokorra, 2025-2027rako dirulaguntza Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

Bigarrenena.- Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratuz, nahi duenak espedientea aztertu eta bere kasuan, alegazioak edo erreklamazioak aurkez ditzan. Epe hori igarota alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onartutako Plan Estrategikoaren 1. aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Hirugarrena.- Dirulaguntza hau ordaintzeko, guztira, 20.000 euroko izendapena egingo da, Oiarztungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuaren kontura, horretarako dagokion partida izenduna sortuz.

Bozketa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	11	EHBildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

-VI-

ALDAPA BEHEKOAKO IGERILEKU TXIKIKO UR KONTSUMOA ERREGULARIZATZEKO ESKAERA

Alkateak azaltzen du, matxura bat dela eta Aldapabekoa-Estanketa igerileku txikiari dagokion 2023/02 epeko uraren ordainagiriak gehiegizko kontsumoa jasotzen duela eta faktura bat sortu zen 5.000€ pasatakoa. Beraien kontsumoaren arabera, fakturak 700-800€ izaten direnez, teknikariak konprobaketak egin ondoren, fakturaren zuzenketa proposatzen da.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzailetzako txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko otsailaren 20ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra.- ALDAPA BEKOA GP RESID DE OYARZUN COM PRO-en izenean igerileku txikiari dagokion 2023/02 epeko uraren ordain-agiria baliogabetu (ordaindua balego itzultzea) eta ordezkot ordain-agiria sortzea proposatzen da, fugan sortutako kontsumoa eta kontadore horrek jarduera arruntan daukan batz besteko kontsumoarekin, 541m³ko kontsumoarekin.

Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:

Izena : ALDAPA BEKOA GP RESID DE OYARZUN COM PRO IFZ/PAS: H20213567
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Kontzeptua Ego. Ep Zenbatekoa

3 2023 02 143 0 URA-ESTOL-ALDAPABEKO-ESTAN 1 5.073,70

Ordezko ordainagiria 2023/02

Kontsumoa 541m³

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
Ura-est	11,8	1,27	541	687,07	698,87
BEZ	0,1				69,89
Kanona		0,025	541	13,525	13,53
		Guztira €			782,28

-VII-

OIARTZUNGO UDALA ETA IZFE, S.A.REN ARTEKO HITZARMENAREN LUZAPENA.

Idazkariak adierazten du, IZFE udalaren baliabide informatiko nagusiak jartzen dituen aldundiko erakundea dela, Gipuzkoako udal gehienei zerbitzua ematen diela. Beraz, eskaintzen dizkiguten zerbitzuengatik ekarpenak egiten dizkio udalak. Hitzarmena 2021.urtean sinatzen da, lau urteko indarraldia amaitzen denez, beste lau urtez luzatzea proposatzen da.

Kostuari dagokionez, urtero kopurua antzekoa izaten da, hainbat aldaketekin, kontratatzen diren zerbitzuaren arabera. Kopurua ehun mila euroren ingurukoa izaten da eta zerbitzu horrekin udaleko sistema informatikoaren zati handi bat osaturik geratzen da.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko otsailaren 20ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea IZFE, S.A.k eta Oiartzungo Udalak 2021eko uztailaren 19an sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren luzapena, 2025eko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31 arte.

Bigarrena.- 2025 urterako hitzarmenaren betebeharrak ekonomikoki aurre egiteko 102.755,32 euroko gastua onartzea, indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0104.222.920.00.05 2025 (6289) partidari egozte (AD/ 356 – 2025), eta hitzarmena indarrean dagoen hurrengo ekitaldietako gastuei aurre egiteko beharrezko kredituak gordetzeko konpromisoa hartzea.

Hirugarrena.- Alkatea baimentzea hitzarmena sinatzeko, baita bere osagarri diren beste edozein dokumentu sinatzeko ere.

-GZK I-

OARSOALDEAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARDUKETA PLAN INTEGRATUA
ONARTZEA

Alkate andereak azaltzen du, Europako funts batzuei erantzuteko dirulanguntza bateratu baten deialdia jaso da Oarsoaldea garapen ajentziatik.

Gaiaren premia bozkatu behar dela adierazten du alkateak beraz, bozka egiten da. Aho batez onartzen da gaia lantzea.

Alkateak jarraitzen du esanez, dirulaguntza hauek, 2025-2029 urteen bitartean gauzatu behar direla, gehienez eskualdeak hamabost milioiko aurrekontua aurkez zezakeen eta hamalau milioi pasatakoa aurkeztu da. API dirulaguntzetatik jasotzen da inbertsioen %40a, gainerakoa dagokion erakundeak jartzen du.

Oiartzunen kasuan, hiru milioitik goragoko proiektuak aurkeztu ditu, bestela ere egiteko asmoa zeuden proiektua ziren. Zehazki, lehena, Altzibarreko gune estalia. Bigarrena, Mugikortasun planari lotuta, bizikletaz eta oinezkoentzako bide berriak egiteko eta bidegorriaren hainbat zati konpontzeko lanak. Hirugarrena, Altzibarren dagoen aparkaleku ondoan dagoen udal eraikin zahar bat konpontzeko lanak, dagoeneko erortzeko arriskuan dagoena, bertan Zorrola trenbidearen inguruko interpretazio zentro txiki bat egitea aurreikusten da. Azkenik, herriko merkataritza bultzatze aldera, dirulaguntzak ematea aurreikusten da, komertzio berri txikiak sustatzeko. Beraz, horri guziarekin gutxi gora behera hiru milioi euroko aurre kontu bat proposatzen da.

Horiek horrela, inbertsioak egin ahala eta egindako gastuak justifikatu ahala, jarritako diruaren %40a jasoko genuke eta egiten ez bada aukera galtzen da. Dena den, planteamendu honekin ez da udala derrigortzen lau urte horietan aipatutako dirua gastatzera behartzen.

Idazkariak azpimarratzen du, kontuhartzaileak txostena egin duela alkateak esandakoa berretsiz hau da, egonkortasun ekonomikoa eta estabilitate finantzieroa ez dela arriskuan jartzen. Bestalde, tramite burokratikoak Errenteriako udalaren bitartez egingo dira eta hori dena lotzeko hitzarmen bat egongo delakoan dago.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzailearen txostenaren baitan, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenengoa.- *Oarsoaldea Bidean: giza eskala mugimenduan* izeneko Jarduera Plan Integratua (PAI) onartzea.

Bigarrena.- Adieraztea Oiartzungo udalerrian gauzatu beharreko jarduerak finantzatzeko dagokion Jarduketa Plan Integratua gauzatzea finantzatzeko kreditu egokiak eta nahikoak dituela edo, bestela, kreditu horiek gaitzeko konpromisoa hartzea.

-VIII-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA, 07/2024 KREDITU ALDAKETA, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK HIRIGINTZA SAILARI UTZITAKO DELEGAZIOAK BERTAN BEHERA UZTEA.

Guzti honen berri eman zaio Udalbatzari:

- Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2025eko urtarrilaren 24tik otsailaren 20ra arte.

Zk. 2025/131tik 2025/316ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2025eko otsailaren 11ean eta otsailaren 25ean, hain zuzen ere.

- Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2025eko otsaila:

	Bazkariak, luntxak,	73,10	
-	Guztira	73,10	2024ko udal aurrekontuari eragiten dion 7.
	Aldaketa		

kreditu aldaketaren berri ematen da, 2024ko aurrekontuaren zazpigarrena eta kreditu aldaketarako espedientearen bidez bideratua. Honela dio onarpen dekretuak:

“Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu, 7/2024 zenbakiarekin identifikatua eta Oiartzungo Udal honen 2024ko aurrekontuaren barnean izapidetua.

Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena aztertu eta gero.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 31. artikuluan eta Aurrekontua garatzeko Udal Arauak bere 5.3 artikuluan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenik.- Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, **49.572,11 €** zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera orritan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea. Hori, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.”

- Tokiko Gobernu Batzarrak hirigintza sailari utzitako delegazioak bertan behera uztea.

2025eko otsailaren 17ko 277 zenbakidun dekretuaren bidez onartu zen Tokiko Gobernu Batzarrak hirigintza sailari utzitako delegazioak bertan behera uztea eta ondoren aipatuko diren ahalmenak. Honela dio onarpen dekretuak:

Alkateak Tokiko Gobernu Batzarraren esku utz dezake zenbait eskumen baliatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 23.2 artikuluetan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 27. artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrela, Oiartzungo Udaleko alkateak, uztailaren 5eko 2023/1040 Dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarrean hainbat eskumen eskuordetu zituen. Orain baina, Lurralde sailari dagokionez (orduan “Hirigintza-Saila”) eskuordetzean aldaketa batzuk egitea komenigarri ikusi da, espedienteen tramitazioa arindu eta beharrezkoak ez diren atzerapenak ekiditeko.

Horiek horrela, aipatutako araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehen.- *Uztailaren 5eko 2023/1040 Dekretuaren bidez Tokiko Gobernu Batzarrarengan utzitako Hirigintza sailari zegozkion delegazioak bertan behera uztea, eta euren ordezkari ondoren aipatzen diren ahalmenak Tokiko Gobernu Batzarrarengan uztea:*

* *Lurralde-Saila.*

- *Plan Orokorreko Hirigintza Arautegi Orokorreko 104. artikuluan aurreikusten diren baimenak ematea edo behin betiko ukatzea, a) hizkikoak (obra txikiei dagozkienak) izan ezik. Edonola ere, ez dira delegatzen eta Alkatearen esku geratzen dira baimena eman edo ukatu aurretik eman daitezkeen tramitezko egintzak, zein baimena eman eta gero baimen horren exekuzioan eman daitezkeenak (hala nola obra amaiera dokumentazioa onartzea, lehen okupazio baimena ematea, eta abalak itzultzea).*
- *Jarduera klasifikatuen jarduera baimenak ematea. Baita, Euskadiko Ingurumen Administrazioa arautzen duen abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.C eranskinean barne sarturik daudenak ere. Alkatearen esku geratzen dira baimena eman edo ukatu aurretik eman daitezkeen tramitezko egintzak.*
- *Baimenen iraungipen-espedienteak erabakitzea*
- *Izaera bereziko hirigintzako galderen kontsulten erantzuna.*
- *Betearazte-aginduak, diziplina espedienteak eta espediente zigortzaileak erabakitzea.*
- *Udalbatzari bereziki ez dagozkion planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu-dokumentuen onarpena, eta, era berean, gestio urbanistikoa eta urbanizazio-proiektuen inguruko dokumentuen onarpena.*
- *Obra-proiektuen onarpena, beti ere kopuruaren arabera adjudikazioa berari ba dagokio, Aurrekontua exekutatzeko Udal Arauak ezarritakoarekin adostasunean.*

Bigarrena.- *Eskuordetze honek iraungo du korporazio honen legealdiak irauten duten bitartean, legealdi hori amaitu aurretik eta eskakizun formalak bete ondoren, eskuordetze hori aldatu edo ezeztatzearen kalterik gabe.*

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Tokiko Gobernu Batzarrari eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari. Era berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da.

Laugarrena.- Dekretu hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera indarrean jarriko da.

ESKARI-GALDERAK

Ez da eskaerarik ez eta galderarik egin.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:35ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



OIARTZUNGO
UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



OIARTZUNGO
UDALA

Sin.: Xabier de la Mota



OARSOALDEA, S.A. eskualde-garapenerako agentziaren eta Oiartzungo Udalaren arteko hitzarmena, Eskualdeko Energia Bulegoaren zerbitzua Oiartzunen eskaintzeari buruzkoa

Oiartzunen, azken sinadura elektronikoaren egunean

BILDU DIRA

Alde batetik, JOANA MENDIBOURE GARAIAR jauna, Oiartzungo Udaleko (aurrerantzean, Udala) alkatea, Udalbatzak 2023ko uztailaren 12an izendatua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak emandako eskumenak erabiliz.

Bestalde, FERNANDO NEBREDÁ DÍAZ DE ESPADA jauna, adinez nagusia, 13.296.752-S zenbakiko Nortasun Agiri Nazionala duena. OARSOALDEA, S.A. merkataritza-konpainiaren izenean eta hura ordezkatzu esku hartzen du (aurrerantzean, OARSOALDEA). Enpresaren helbidea, ondorio hauetarako, hauex da: Astigarragako Bidea 2, Mamut bulegoen eraikina, 2. solairua, 20.180 - OIARTZUN. Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, eta A-20458329 IFZ du. Konpainiako gerente gisa esku hartu du, eta, era berean, adierazi du ahalduna dela hitzarmen hau emateko, AGENTZIAko Administrazio Kontseiluak 1993ko irailaren 15ean hartutako ahalordetze-erabakiaren babesean.

Agertutakoek agiri hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

I. OARSOALDEA kapital publikoko merkataritza-sozietatea da, Lezo, Pasaia, Errenteria eta Oiartzungo udalek osatua, eta bere helburu soziala eskualdearen garapen sozio-ekonomikora eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako zereginak eta jarduerak gauzatzea da. Era berean, aipatutako lau udalen bitarteko propioa da.

II. Eskualdeko Energia Mahaian, lau udalerrietako ordezkariekin, OARSOALDEA eskualde garapenerako agentziak "Energia Bulegoa" izeneko jarduera programa garatzea erabaki zela. Hasiera batean, bulego hoen kokapena Erreterian dago, baina Udalak Oiartzunen Energia Bulegoaren zerbitzua eskaini nahi du, udalerriko herritarrengana hurbiltzeko.

III. Udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumen propioak ditu erabiltzaileen eta kontsumitzaileen defentsaren eta babesaren kudeaketaren arloan (11. apartatua) eta tokiko garapen ekonomiko eta sozialaren arloan (25. apartatua).

Orain arte azaldutakoaren arabera, alderdiek hitzarmen hau egitea erabaki dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Objektua

Hitzarmen honen xedea da alderdi egileen arteko lankidetzarako baldintzak zehaztea, Eskualdeko Energia Bulegoaren zerbitzua Oiartzunen eskaini ahal izateko, OARSOALDEA eskualde-garapenerako agentziaren bidez.

Bigarrena. Hitzarmenaren iraupena, aldaketa eta azkentzea

1. Hitzarmen honek 2024ko abenduaren 31era arteko iraupena izango du, baina urtero luzatu ahal izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan aurreikusitako mugaraino.
2. Hitzarmena azkendu egingo da hitzarmenaren xede diren jarduketak betetzen direnean, bai eta hitzarmena suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat dagoenean ere:

- a) Sinatzaile guztiek aho batez hartutako erabakia.
- b) Sinatzaileraren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Hitzarmena arrazoi horrengatik azkentzen bada, SPAJLren 51.2.c) artikuluan araututako kontraesan-prozeduraren ondoren, hitzarmenaren beste aldeari

kalte-ordaina ordainduko zaio, dagoeneko gauzatutako jarduketek edo ez-betetze horren ondorioz bere gain hartu behar dituzten beste jarduketa batzuek eragindako kalteengatik.

- c) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen epailearen erabakiz.
- d) Azkentzea dakarten lege- edo erregelamendu-xedapenak indarrean jartzeagatik.
- e) Hitzarmenaren indarraldia igarotzeagatik, indarraldia luzatzea erabaki ez bada.

Kasu horietan, iraungitzeko arrazoi zehatzaren arabera eta abian diren jarduketek egoera berezia ikusita, jarduketekin jarraitzeko modua ezarriko da, eta alderdiek ezarritako epe luzaezinean amaituko dira, jarraipen-batzordeak proposatuta.

3. Hitzarmen honetan egin daitezkeen aldaketak, sinatzaileek aho batez adostutakoak, dagokion aldaketa-tresna sinatuz formalizatu beharko dira, hasierako hitzarmena onartzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza berberekin.

Hirugarrena. Energia Bulegoaren funtzioen deskribapena

1. Oiarzunen ezarri nahi den Energia Bulegoak eginkizun hauek izango ditu hasieran:

- a) Energia-kontsumoen fakturen informazioa eta interpretazioa.
- b) Merkatuan dauden tarifei buruzko informazioa.
- c) Energia-kontsumoen analisia.
- d) Laguntza ekonomikoei buruzko informazioa: bonu sozial elektrikoa, bonu sozial termikoa, kenkari fiskalak, etab.
- e) Energia berriztagarriei, motei, laguntzei eta abarri buruzko informazioa.
- f) Etxebizitzaren birgaitze energetikoari buruzko aholkularitza.
- g) Energiari buruzko azken berriak.
- h) Hitzaldiak eragile eta kolektiboentzat.

2. Deskribatutako eginkizunak Hitzarmen honen Jarraipen Batzordean adostu daitezkeen beste edozein eginkizunen kalterik gabe ulertuko dira.

Laugarrena. Energia Bulegoaren finantzaketa

Energia Bulegoaren finantzaketa bi zatitan banatuko da:

- Pertsonala eta bere gastuak: Energia bulegoaren finantzaketa OARSOALDEAren urteko kudeaketa planean ezarritako irizpideen arabera izango da.
- Oiarzongo herrian finkatuko den bulego fisikoari dagozkion gastuak: udalak finantzatuko ditu.

Bosgarrena. Lokalaren erabileraren lagapena eta Energia Bulegoaren funtzionamendurako beharrezkoak diren beste baliabide batzuk

1. Hitzarmen honen 1. ERANSKINEAN deskribatutako Udalaren lokalean kokatuko da Energia Bulegoa. Erabilera-lagapena doakoa izango da.

2. Udalak bere gain hartzen du Energia Bulegoaren funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabide material guztiak emateko betebeharra.

Seigarrena. Energia Bulegoaren funtzionamendu-egutegia eta -ordutegiak

Energia Bulegoaren funtzionamendua hitzarmen honen 2. ERANSKINEAN ezarritako egutegira eta ordutegietara egokituko da.

Zazpigarrena. Langileak eta Udalaren erantzukizunetik salbuestea

OARSOALDEAk izango du Energia Bulegoa zuzentzeko ahalmena, bai eta ordutegi-kontrola, baimenen emakida edo jarraipena eta langileen oporrak ere. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango Energia Bulegoko langileen lan-harremanagatik, OARSOALDEAren mende baitago soilik.

2. Bi erakunde sinatzaileetako langileek bereizita egingo dute lan. Zerbitzuari buruzko edozein gorabehera bi erakundeek izendatutako ordezkarien bitartez bideratu beharko da.

Zortzigarrena. OARSOALDEAren lankidetzak

Hitzarmen honen arabera, OARSOALDEAk Eskualdeko Energia Bulegoaren zerbitzua Oiarzunen martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, Hitzarmen honetan zehaztutako jarduerak gauzatzeko behar diren lantaldea ezarri eta azpikontratazioak eginez.

Bederatzigarrena. Jarraipen Batzordea

1. Lankidetza hori garatzeko, eta jarduketak entregatzen diren unera arte, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori alderdi bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, eta behar adina aldiz bilduko dira, alderdietako edozeinek eskatuta.
2. Batzorde honi dagokio hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egitea, bai eta hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen zalantzak konpontzea ere.

Hamargarrena. Jurisdikzio-ordena eskuduna

1. Hitzarmen hau administratiboa da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluak xedatutakoak arautzen du.
2. Aurreko klausulan Jarraipen Batzordeari esleitzen zaizkion eginkizunei kalterik egin gabe, edukia aplikatzeari, interpretatzeari eta betetzeari buruz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren eskumenekoak izango dira.

Hamaikagarrena. Publizitatea.

Hitzarmen hau Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.8 artikuluan xedatutakoaren arabera argitaratuko da. Alde horretatik, aldeek berariaz onartzen dute hitzarmen honi eskatutako publikizitatea ematea.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, agertutakoek sinadura elektronikoa sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Joana Mendiboure Garaiar andrea, Oiarzuingo Udaleko alkatea.

OARSOALDEA, Sako gerentea, Fernando Nebreda Díaz de Espada jauna.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024ZZ200016-Hitzarmena/Convenio ()

